| | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Bideoak** | Oso erne egon naiz, dena ulertu dut eta ulertu ez dudana galdetu dut. | Erne egon naiz eta ia dena ulertu dut, baina ez ditut zalantza guztiak galdetu. | Erne egon naiz, baina ez dut guztiz ulertu eta ez dut galdetu. | Ez naiz oso erne egon eta gauza asko ez ditut ulertu. | Ez naiz erne egon eta ez dut ezer ulertu. |
| | | | | | |
| **Jolasak eta taldeko ariketak** | Ariketa eta jolas guztietan gogotsu parte hartu dut eta nire taldekoekiko jarrera oso ona izan da. | Ariketa eta jolas guztietan parte hartu dut jarrera onarekin eta nire taldekoekiko jarrera ere ona izan da. | Ariketa eta jolas guztietan parte hartu dut, baina batzuetan ez dut guztiz parte hartu; edo nire taldekoekiko jarrera ez da guztiz ona izan (ez diet kasurik egin edo beraiekin haserretu naiz). | Ariketa eta jolas batzuetan hartu dut parte bakarrik; edo nire taldekoekiko jarrera ez da batere ona izan. | Ariketetan eta jolasetan oso gutxi hartu dut parte; edo nire taldekoekiko jarrera txarra izan da. |
| | | | | | |
| **Saio-egunerokoa** | - Saio guztietako fitxak osorik eta esaldi askorekin bete ditut.<br>- Letra egokiz eta era txukun batean bete dut.<br>- Ez ditut gramatika edo ortografia akats larririk izan. | - Saio guztietako fitxak osorik bete ditut.<br>- Letra egokiz idatzi dut, baina ez da guztiz txukun geratu.<br>- Zenbait ortografia eta gramatika akats arrunt izan ditut. | - Saio guztietako fitxak bete ditut, baina ez daude ondo beteta.<br>- Letra eta txukuntasuna ez dira oso egokiak izan.<br>- Zenbait ortografia eta gramatika akats izan ditut. | - Saio batzuetako fitxak amaitu gabe daude.<br>- Letra eta txukuntasuna ez dira oso egokiak izan.<br>- Zenbait ortografia eta gramatika akats larri izan ditut. | - Fitxa guztiak amaitu gabe daude edo idatzitakoak ez dauka batere zentzurik.<br>- Letra eta txukuntasuna ez dira batere egokiak izan.<br>- Zenbait ortografia eta gramatika akats larri izan ditut. |
| | | | | | |
| **Informazio-bilaketa** | Agindutako informazio guztia bilatu dut eta nire kabuz, bilatutakoaren laburpen bat egin dut; edo gaiarekiko harremana zuten beste gai batzuk bilatu ditut. | Agindutako informazio guztia bilatu dut, baina ez dut ezer gehiagorik egin, eskatutako ariketak izan ezik. | Agindutako informazio guztia bilatu dut, nahiz eta zenbait gauza ez aurkitu. | Agindutako informazioaren zati txiki bat baino ez dut bilatu. | Ez dut informaziorik bilatu. |
| | | | | | |
| **Gaiarekiko jarrera** | Gaia gogotsu ikasi dut eta agertu edo sortu zaizkidan galdera guztiak nire kabuz erantzun ditut (informazioa bilatuz) edo irakasleari galdetuz. | Gaia gogotsu ikasi dut, baina zenbait zalantza erantzun gabe geratu zaizkit. | Gai interesgarria iruditu zait, baina ez naiz oso erne egon eta zenbait gauza ulertu gabe geratu zaizkit. | Gaia interesgarria izan da, baina ez dut lan askorik egin eta gauza garrantzitsu asko ulertu gabe geratu zaizkit. | Gaia pixka bat interesgarria izan da, baina ez ditut lanak amaitu eta gauza garrantzitsu guztiak ulertu gabe geratu naiz. |
| | | | | | |
| **BATEZBESTEKOA** | | | | | |